

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	2022IPLE0003
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

2022-04-05eko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2022ko apirilaren 5ean, arratsaldeko 19:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Mikel Galarza Arrue

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra
- Aingeru Galarraga Barandiaran


Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. ERREKA ONDOKO URALITA ZATIAK
4. HIRI-LURREN BALIO GEIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA
5. LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA
6. ALBIZTURKO HAPO-REN LEHEN ALDAKETA PUNTUALAREN HASIERAKO ONARPENA
7. KONTRATAZIOA ZENTRALA: LAN ARRISKUEN PREBENTZIOKO ESPEDIENTEA 2022
8. HERRI SAILAREN APROBETXAMENDUARI BURUZKO BILERA
9. UDABERRI FESTA
10. KORRIKA
11. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

2022-03-02ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2022ko 14 eta 22 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. ERREKA ONDOKO URALITA ZATIAK

330/2021 Sarrera Erregistroaren bidez, Albizturko Industria Gunea B Areako lurren jabe den Juan Bautista Iraola Tejeria jaunak, erreka bazterrean eta bere lurretatik gertu uralita zatiak zeudela jakinarazi zion Albizturko Udalari.

Albizaturko Udaleko arkitekto aholkulariak, 2022ko otsailak 2an egindako ikuskaritzan frogatu zuen uralita zatiak zeudela erreka bazterrean, eta txosten teknikoa idatzi zuen argazki eta guzti.

Txosten hortan oinarrituz 7/2022 Alkatetza Dekretua egin zen, eta bertan, lur horien jabea den Ramon Odriozola Garmendia jaunari, hilabeteko epean baimendutako kudeatzaile baten bidez hondakin horiek kentzeko eta Albizturko Udalean lan horiei dagokien dokumentazioa aurkezteko eskatu zitzaion.

7/2022 Alkatetza Dekretuaren jakinarazpena 2022ko otsailaren 10ean jaso zuen Ramon Odriozola Garmendia jaunak, eta hilabeteko epea pasa ondoren, uralita zatiak dagoeneko ez daude erreka bazterrean, eta Albizturko Udalean ez da uralita zati hauek kentzeko beharrezkoa den dokumentaziorik aurkeztu.


Eusko Jaularitzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin harremanetan jarri gara, gertatutakoaren berri eman eta Albizturko Udalak eman beharreko pausuei buruz galdetzeko.

Hauen aburuz, Albizturko Udalaren eskuduntza da gertaera hauengatik zehapen espedientea martxan jartzea eta arau hauste larri moduan dagokion isuna jartzea Ramon Odriozola Garmendia jaunari.

4. HIRI-LURREN BALIO GEIKUNTZAREN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA

Beharrezkoa da Albizturko Hiri izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatzea, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko sententziara egokitu eta Gipuzkoako Foru Araudiak aurreikusten dituen hainbat elementu txertatzeko.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Lehena.- Hiri izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatzeko espedientea hastea, uztailaren 5eko Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, ezarritako izapideen arabera.

Bigarrena.- Espedientea GAOran bidali eta udaletxeko iragarki-oholean jartzea 30 egunez.

5. LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA

2022ko urtarrilaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (18. zenbakia), Albizturko Udalaren lanpostu zerrenda argitaratu zen.

2022ko martxoaren 2an, Albizturko Udalean, Eusko Jaularitzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzako idatziari sarrera eman zitzaion (64. zenbakia). Bertan, Albizturko Udalaren lanpostu zerrendan topatutako hutsuneak aipatzen ziren eta informazio gehigarria eskatzen zen.

2022ko martxoaren 14ean, Albizturko Udalak idatzia bidali zion (30. irteera zenbakia) Eusko Jaularitzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, lanpostuen zerrendako hutsuneak hurrengo Osoko bilkuran aztertuko zirela adieraziz.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2022ko lanpostuen zerrendaren aldaketari hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Lanpostuen zerrendaren hasierako onarpena GAOran bidaltzea.


6. ALBIZTURKO HAPO-REN LEHEN ALDAKETA PUNTUALAREN HASIERAKO ONARPENA

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko HAPO-ren lehen aldaketa puntualaren hasierako onarpena onartzea.

Bigarrena.- Espedienteak GAOran bidaltzea eta udaletxeko iragarki-oholean jartzea 45 egunez, ingurumen azterketa estrategikoaren dokumentua eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamenduak egindako Ingurumen txosten estrategikoarekin batera.

7. KONTRATAZIOA ZENTRALA: LAN ARRISKUEN PREBENTZIOKO ESPEDIENTEA 2022



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak, lan arriskuen prebentziorako kontratazio espediente berri bat irekitzeko asmoa du eta Albizturko Udalari ere atxikitzeko gonbitea egin zaio.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Lan arriskuen prebentziorako esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Kontratazioaren Zentralari erabakiaren berri eman eta beharrezko dokumentazioa osatzea.

8. HERRI SAILAREN APROBETXAMENDUARI BURUZKO BILERA

Herri onurakoa den 2.004.1 Albizturko mendiaren (poligono 1 117 saila) ustiapena amaitua dago eta berriro esleitu nahi da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak larre ustiapenerako baldintza teknikoen orria bidali zuen Albizturko Udalera, eta deialdia atera aurretik, Albizturko Udalak bilera deitu zuen martxoak 25ean, interesa zuten herritar guztiekin gaiari buruz hitz egiteko.

Herritar bat baino gehiago direnez interesa dutenak, Udalaren nahia elkarrekin eskaintza bat adostu eta Udalari aurkeztea zen (bestela orain arte eskaintza altuena eskaini duen herritar bakarrari esleitu zaiolako), baina bilerako jarrerak ikusita, ez dirudi aukera hau posible izango denik.

Iñaki Orbegozo, Albizturko alkatea, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariarekin hitz egitekotan geratu da, egon daitezken aukera desberdinei buruz hitz egiteko.

9. UDABERRI FESTA


Apirilak 1etik 3rako asteburuan ospatu zen Udaberri festa Albizturren. Nahiz eta eguraldi txarrak baldintzatu zuen, jende asko ibili zen eta balorazio positiboa egin da.

10. KORRIKA

2022ko apirilaren 8an pasako da Korrika Albizturtik 11:30ak aldera. Albizturko Udalak erosi du km 1 eta hautetsiek eramango dute lekukoa.

11. GALDERA ERREGUAK

- **Eskolako dirulaguntza:** 2022. urteko aurrekontuan 700 €-ko diru partida bat dago Eskolarako dirulaguntza moduan (igeriketarako autobusa ordaintzeko), baina azkenean 180



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

€ izan dira. Guraso Elkarreak ere dirulaguntza eskatu duenez goizetako zaintza ordaintzeko, 500 €-ko dirulaguntza emango zaie.

- **Etarte Azpiko portxeak:** 2021eko irailean Etarte Azpiko etxadian portxeak eraikitzeko aurreproiektua aurkeztu zuen Iñaki Zalakain Sorarrain arkitektoak.

Aurreproiektu honek ez zuen betetzen egun Albizturren indarrean dagoen Egurtoki eta Portxeen Ordenantza, mugakideekiko 2 metroko gutxienerako distantzia mantentzeari dagokionean. Baina salbuespen moduan (Ordenantzan jasota dago kasu hauetan salbuespenak egiteko aukera), Earteko Etxadiko bizilagun guztien adostasunarekin, aurreproiektua onartzeko konpromezua hartu zen.

Adostasuna adierazten zuen Konpromezu Akta prestatu eta Earteko bizilagun guztiei Albizturko Udalera sinatzera etortzeko eskatu ondoren, lortu da denen sinadura.

Beraz, Etarte Azpiko etxadian portxeak eraikitzeko aurreproiektua ontzat ematen da eta bertako bizilagunen batek portxea eraiki nahi duenean aurreproiektu hontan oinarrituz eskatuko du obra baimena.

- **Tolosaldeako Pentsiodunen eskaera:** Tolosaldeko Pentsiodunek banku zerbitzuekin lotutako hainbat puntu onartzeko eskaera egin diote Albizturko Udaleko Osoko Bilkurari. Eskaera batzuk nahiko konplexuak direnez, eskualdeko beste Udalekin hitz egiteko erabakia hartu da.

Osoko bilkura, 21:00tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2022ko apirilaren 6an